



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano: 0728/2004/04

ORG17I0F4

Código de validación/*Balidazio kodea*
4N3A315Q5F112Q1410R3



Txostena egin duen funtzionarioa
Daniel Salazar Irusta. Idazkaria.

Gaia
Toki Gobernu-batzordearen eraketa

Aurreko erreferentziak
Udalaren eraketa

Aplikatzan den legedia
Apirilaren 2ko 7/1985 Toki jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen -zeina apirilaren 21ko 11/1999 eta abenduaren 16ko 57/2003 legeak aldarazi duten
Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak arautzen dituen gardentasuna eta informazio publikora iristeko lotutako alderdiak
Toki-erregimenari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Lege-dekretuan onetsitakoa
Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret-dekretuan onetsitakoa

Lurralde eremuko administrazio publikoak diren aldetik, udalerriek bere kabuz udala antolatzeko ahalmena dute, beti ere, beren eskumenen barne.

Nork bere kabuz antolatzeko ahalmen bezala, administrazioak bere egitura eratzeko duen ahalmenen multzoa ulertu behar dugu. Beraz, autoantolatzeko aukera, hain zuzen ere.

Udal autonomia bermatzen duen Konstituzioaren 140. artikulua dioenez, udalerraren gobernua eta administrazioa beren udalari dagokio, alkatea/k eta zinegotziek osatzen dutenari.

Funcionario/a que lo emite
Daniel Salazar Irusta. Secretario/a.

Asunto
Constitución de la Junta de Gobierno Local

Antecedentes
Constitución del Ayuntamiento

Legislación aplicable
Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local 7/1985, de 2 de abril, modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, modificada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre
Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno
Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, Real Decreto Ley 781/1986, de 18 de abril

Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre

En su calidad de administraciones públicas de carácter territorial, y dentro de la esfera de sus competencias, corresponde a los municipios, entre otras, la potestad de autoorganización.

Por potestad organizatoria se entiende el conjunto de facultades que la administración ostenta para configurar su estructura. La posibilidad por consiguiente de autoorganizarse.

Efectivamente, el artículo 140 de la Constitución, garante de la autonomía municipal, dice que el gobierno y administración de los municipios corresponde a sus respectivos Ayuntamientos, integrados por los/as Alcaldes/as y concejales/as.

Aipaturiko artikulua gobernua eta administrazioa hitzegiten digu eta hitz horiek gure Konstituzioan berriak direnez, lehenik eta behin, funtzio horiek zertan diren mugatzea dagokigu. Ikuspuntu teoriko batetik esan dezakegu udal gobernu udalaren azpiegituraz baliatzeko erabilgarritasunik gorenena dela, hots, zuzentzeko eta orientatzeko funtzioa, hitz gutxitan esanda. Udalak politikoki zama gehien duen organizazioa da, bere jatorria zuzenean hauteslerian duelako. Administrazioa, berriz, funtzio betearazlea da; hots, gobernutik datozen agindu eta orientazioak betetzea, hain zuzen ere.

Esanak esan, gobernuak propioa du organizatzeko eta herritarrek aukeratutako ordezkariak gain hartzen dituzten goragoko ardurak hartzeko ahalmena, zerbitzuen kudeaketa arrunta barne dagoela. Zerbitzuen kudeaketa diodanean, zentzu hertsian, zerbitzuon exekuzioaz ari naiz, horiek gobernuak izan ez eta udal organizazioarekin harreman politikotik ez duten pertsonak gauzatu ditzazketelarik.

Horrekin guztiarekin adierazi nahi dudana ondokoa da: maila teorikotik kanpo, udaleko gobernu eta administrazioaren funtzioak bereiztea zaila gertatzen dela. Bata eta bestearen arteko ezberdintasunak ez direnez hain argiak, administrazioa edo gobernuak non hasten eta non bukatzen diren, eta horien arteko mugak bereiztea zaila da.

Nolanahi ere, gobernuaren funtzioa deritzodana mugatzeko asmoarekin esango dut, funtzio horiek administrazioan ematen ez den jarduera politikoa daramala berorrek. Gobernuaren funtzioa nagusia zuzentzailea da batez ere, eta

El artículo citado nos habla de gobierno y administración, expresión dual novedosa en nuestra Constitución, por lo que conviene delimitar en primer lugar estas funciones. Desde un punto de vista teórico puede decirse que el gobierno municipal es el máximo de disponibilidad sobre el aparato municipal, aquella organización que está más cargada políticamente en cuanto emana directamente del electorado, es la función directiva y orientadora. La administración sería la función de ejecución, es decir, supondría llevar a cabo las instrucciones recibidas, la materialización de las orientaciones y órdenes derivadas del gobierno.

A pesar de lo indicado la función de gobierno incluye la potestad de organización y las funciones de mayor responsabilidad que son asumidas por los/as representantes designados/as por el pueblo, incluida la gestión ordinaria de los servicios, gestión que en sentido estricto supone ejecución, la cual a su vez puede llevarse a cabo por personas no pertenecientes al gobierno y cuya vinculación con la organización municipal no tiene carácter político.

Con ello queremos decir que si salimos del plano teórico resulta difícil discernir a escala municipal los perfiles de la función de gobierno y administración. Las diferencias existentes entre una y otra no son tan claras, siendo imprecisos los límites donde empieza la de administración y termina la de gobierno.

Sin embargo y tratando de acotar lo que denominamos función de gobierno diremos que ésta conlleva una actividad de tipo político que no se da en la de administración, es la función directiva por excelencia mientras que, como se ha



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano: 2023/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*

4N3A315Q5F112Q1410R3



administrazioarena, arestian esan bezala, funtzio betearazlea nagusiki.

Aipatu dudan Konstituzioaren 140. artikulua ez du ezer adierazten udal gobernuaren egiturari buruz. Artikuluak dio udalek zinegotzi eta alkateak osatzen dituztela, horiek legeak ezarritako prozeduraren arabera aukeratzeko direlarik; zinegotziak, sufragio unibertsal, berdin, libre, zuzen eta sekretu bidez eta, alkateak, zinegotziek edo auzotarrek egindako bozketaren bidez. Hori horrela, Konstituzioa abiapuntutzat hartuz eta udalerriek autonomia dutela kontutan izanik, atera dezakegun ondorioa honakoa da: udalerriek autoantolatzeko ahalmena dutela egia izanik ere, ahalmen hori uste baino mugatuagoa dela, Konstituzioak ezartzen duen eskumenen banaketa ikusita beste gauza bat dirudien arren.

Bestalde, ezin dugu ahaztu Konstituzioaren 149,1,18. artikulua estatuari ematen diola herri administrazioaren toki jaurbidearen oinarriak ezartzeko eskumena eta, zalantzarik gabe, eskumen horren arabera estatuak udalaren antolakuntzarako oinarrien inguruan zer esana badu.

Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 148,1 eta 2. artikuluko ataletan xedatutakoaren arabera, autonomi-erkidegoak ere toki jaurpideari buruz legistatu dezakete eta, izan ere, alor horretan dagoeneko eskumenak bere gain hartuta dituzte. Hori horrela, udalek autoorganizatzeke dituzten aukerak errealitatean mugatuak dira, oso mugatuak.

Estatuko legegileak aukera zabalak ditu beraz antolakuntza-egitura horretan eragiteko, Konstituzioan ez baitator erabat zehaztuta. Horrek ez du esan nahi udal gobernu antolatzeke sistema edozelan diseinatu daitekeelarik, mugak argiak baitira –Espainiako Konstituzioaren 140. artikuluan

señalado, la de administración es la ejecutiva.

No dice nada el mencionado artículo de la Constitución respecto a la estructura del gobierno municipal. Se limita a señalar que el Ayuntamiento está integrado por los/as concejales/as y los/as Alcaldes/as, elegidos/as los/as primeros/as por sufragio universal, igual, libre, directo y secreto en la forma establecida por la ley, y, los/as segundos/as, por los/as concejales/as o los/as vecinos/as, en su caso. Por ello, si partimos del texto constitucional y siendo que los municipios gozan de autonomía cabe deducir que los mismos tienen potestad de autoorganización, lo cual es cierto, pero no con la amplitud que puede parecer dado el reparto competencial establecido en la Constitución.

No cabe olvidar que, el artículo 149,1,18 de la Constitución reserva al estado la competencia sobre el establecimiento de las bases del régimen jurídico de las administraciones públicas, lo que sin duda incluye también competencias estatales sobre el establecimiento de las bases de la organización municipal.

Por otro lado, también las comunidades autónomas pueden y han asumido competencias en esta materia al poder legislar sobre el régimen local, a tenor de lo dispuesto en el artículo 148,1 y 2 CE, por lo que la autoorganización que pueden llevar a cabo los respectivos Ayuntamientos es limitada, prácticamente residual.

El legislador estatal tiene pues un amplio margen para determinar esa estructura organizativa, dado que no viene prefijada constitucionalmente. Esto no supone que se pueda diseñar arbitrariamente el sistema organizativo del gobierno municipal, pues existen unos claros límites, que vienen

jasotzen dira— eta udala osatuko dutenak herritarrek aukeratu dituztelako. Hortaz, muga demokratikoa da, estatuaren konfigurazioak berak mugatzen duelako eta muga hori berori udal gobernuaren oinarria izan behar duelako.

Bestalde batetik, udalerriko interesak kudeatzeko eta herritarrak eskatzen dizkion zerbitzuak emateko gobernu eraginkorra behar du izan. Demokraziak oinarri propioak ditu, askatasunaren ideiarekin loturik daudenak. Herritarrek beraien gobernu eratuko ez balute, ez litzateke organizaziorik egongo.

Gai publikoak eraginkortasunez kudeatzea herritarren eskakizuna da, hots, eskakizun hori osagarri bat da, sistema eraginkor batek zuzentzaile demokratiko batzuk eskatzen dituelako, demokraziarik gabe ezin baita agintariaren eraginkortasuna kontrolatu.

Horiek guztiak kontutan harturik, ikus dezakegu demokrazia eta eraginkortasuna gai publikoetan parte hartzeko herritarrek duten eskubidearekin batera muga bezala jarduten dutela eta, kontutan hartu beharrekoak direla udaleko gobernu organuen egitura zehazterakoan. Hortik aurrera, legelariak aukera izango du hauteskunde sistema eta hauteskundeak egiteko modua aukeratzeko; baita kandidaturak zerrenda ireki edo itxien bidez osatuko diren, edo udaleko organoak kide anitzekoak ala pertsona bakarrekoak izango diren eta abar erabakitzeke ere.

Horiek horrela, udalaren organizazioa antolatu beharko da Toki Jaurpidearen Oinarrietan, Euskal Herriko Autonomi-erkidegoaren araudian eta udalbatzaren Araudi organikoan xedatutakoarekin bat

dados por una parte en el mismo artículo 140 CE, en la medida que son los/as vecinos/as quienes eligen a quienes han de integrar el Ayuntamiento. Hay pues un límite de carácter democrático, un límite que viene dado por la propia configuración del estado y que debe ser el cimiento del gobierno municipal.

Por otra parte ese gobierno ha de ser eficaz en la gestión de los intereses del municipio, en la prestación de los servicios que demanda el/la ciudadano/a. La democracia tiene fundamentos propios conectados con la idea de libertad. No habría organización si los/as ciudadanos/as no se diesen su propio gobierno.

La eficacia en la gestión de los asuntos públicos es una exigencia de las personas, es un valor complementario en la medida que un sistema eficaz exige un correctivo democrático, porque sin democracia no se puede controlar la eficacia de quien gobierna.

Teniendo en cuenta estas consideraciones, la democracia y la eficacia actúan como límites junto al derecho de los/as ciudadanos/as a participar en los asuntos públicos (artículos 23 y 9, 2 CE), y deberán tenerse en cuenta a la hora de determinar la estructura de los órganos de gobierno municipales. A partir de esto, el/la legislador/a podrá determinar el sistema electoral y la forma de celebración de los comicios; si las candidaturas serán mediante listas abiertas o cerradas; los órganos colegiados y unipersonales en que se estructurarán los Ayuntamientos; etc.

Por todo lo expuesto la organización municipal se atenderá a lo dispuesto en la Ley de Bases, a la normativa procedente de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la materia y a lo dispuesto en el Reglamento



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Órg 28/2023/04

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

ORG1710F4

Código de validación/Balidazio kodea

4N3A315Q5F112Q1410R3



etorriz.

Toki jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 20. artikulua ondokoa dio:

“1. Udalaren organizazioak ondoko arauetara jarraitzen die:

a) Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta udalbatza daude.

b) Toki Gobernu-batzordea 5.000 biztanletik gorako udalerrietan dago eta kopuru horretara iristen ez direnen kasuetan egon daiteke, baldin eta udalaren Araudi organikoak xedatzen badu edo udalbatzak berariaz horrela erabakitzen badu.

c) 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta kopuru horretara iristen ez direnetan, udalaren Araudi organikoak xedatzen duen eta Udalbatzak erabakitzen duen kasuetan, organu batzuk izango dira, udalbatzarrera jaso beharreko gaiei buruzko kontsulta, txostena, ikerketa edo irizpena egin edo emateko, beti ere, legeria autonomikoak eremu horretarako organizazio modu ezberdin bat aurreikusten ez badu. Halaber, organuok alkatearen, Toki Gobernu-batzordearen eta eskuordetza jaso duten zinegotzien kudeaketaren jarraipena izango dute eginkizun bezala, udalbatzak kontrolerako dituen eskuduntzen kaltetan gabe. Udalbatzan dauden alderdi politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea dute, beren zinegotzien bitartez.

d) Gainerako organuak, arestian adierazitakoen osagarri direnak, udalerrietako Araudi organiko propioen bidez finkatu eta arautzen dira”.

2. Aurreko zenbakiko c) atalean esandakoaren kaltetan gabe, autonomi-

orgánico propio de la Corporación.

El artículo 20 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, establece lo siguiente:

“1. La organización municipal responde a las siguientes reglas:

a) El Alcalde, los Tenientes de Alcalde y el Pleno existen en todos los Ayuntamientos.

b) La Junta de Gobierno Local existe en los municipios con población de derecho superior a 5.000 habitantes y en los de menos, cuando así lo disponga su Reglamento orgánico o así lo acuerde el Pleno de su Ayuntamiento.

c) En los municipios de más de 5.000 habitantes, y en los de menos en que así lo disponga su Reglamento orgánico o lo acuerde el Pleno, existirán, si su legislación autónoma no prevé en este ámbito otra forma organizativa, órganos que tengan por objeto el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del Pleno, así como el seguimiento de la gestión del Alcalde, la Junta de Gobierno Local y los concejales que ostenten delegaciones, sin perjuicio de las competencias de control que corresponden al Pleno. Todos los grupos políticos integrantes de la Corporación tendrán derecho a participar en dichos órganos, mediante la presencia de concejales/as pertenecientes a los mismos.

d) El resto de los órganos, complementarios de los anteriores, se establece y regula por los propios municipios en sus Reglamentos orgánicos”.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en la regla c) del número anterior, las leyes de las

erkidegoek lege-testu honetan aurreikusitako udal organizazioentzat osagarria izango den egitura ezarri ahal izango dute toki jaurbideari buruzko legeen bitartez, eta horiek udalerri bakoitzean indarrean egongo dira.

Epaimahai Konstituzionalak abenduaren 21ean emaniko 214/1989 epaian esaten duenaren arabera, orden konstituzionalak hiru eremu araugile bereizten ditu, eskuduntza-banaketan (Konstituzioaren 149,1,18. artikulua): lehena estatuaren oinarritzko legeria, bigarrena autonomi-erkidegoen legeria, erkidego bakoitzaren estatutuen arabera, eta hirugarrena; udalerrien ahalmen araugilea, azken hori Konstituzioak bere 140. artikuluan bermatzen duen autonomiari atxiki.

Epaimahai Kontituzionalak epai horretan konstituzio kontrakoak jo zituen Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 20. artikuluko bi atal, atalok autonomia-garapenaren barne, udal organizazioaren alorrean legeria autonomikoak prestatzeko aukerak ezabatzen zituztelako. Hortaz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu duen Toki Jaurpidearen Oinarriak Arautzen dituen Legean, autonomi-erkidegoek legeria garatzeko ahalmena dutela adierazten da eta, aldi berean, udalek beraiek organizatzeko autonomia dutela onartzen da, eremu hori autonomi-erkidegoek ezin izango dutelarik mugatu edo inbaditu udal organizazio osagarriak arautzeko prestatzen duten legeriarekin.

comunidades autónomas sobre régimen local podrán establecer una organización municipal complementaria de la prevista en este texto legal, que regirá en cada municipio.

Tal como se dice en la sentencia del Tribunal Constitucional 214/1989, de 21 de diciembre, en lo concerniente a la organización municipal, el orden constitucional de distribución de competencias se funda en el reconocimiento de tres ámbitos normativos correspondientes a la legislación básica del estado (artículo 149,1,18 de la Constitución), la legislación de desarrollo de las comunidades autónomas, según los respectivos estatutos y la potestad reglamentaria de los municipios, inherente esta última a la autonomía que la Constitución garantiza en su artículo 140.

El Tribunal Constitucional en esta sentencia declaró inconstitucionales dos incisos del artículo 20 de la Ley de Bases del Régimen Local porque con ellos se eliminaba la posibilidad de todo espacio normativo para la legislación autonómica de desarrollo autonómico en materia de organización municipal. En este precepto, pues, así transcrito tras la modificación de la Ley de Bases del Régimen Local operada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, se definen los órganos básicos municipales, se reconoce la potestad legislativa de desarrollo de las comunidades autónomas y se admite, al propio tiempo, la existencia de un ámbito reservado a la autonomía organizativa municipal, ámbito éste que no podrá ser limitado o invadido por las normas que, en materia de organización municipal complementaria, dicten las comunidades autónomas.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano 2304/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*
4N3A315Q5F112Q1410R3



Udalerriek beharrezkoak dituzten organoen eta horien osagarriak direnen garapena 1986ko azaroaren 28ko Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 35. eta 119. artikuluetan eta horien ondorengoetan ematen da.

Bestalde, Ermuko udalbatzaren Araubide organikoaren 5. artikulua aipatu egiten ditu udalaren gobernu- eta administrazio-organok zeintzuk izango diren.

Azaldutakotik atera beharreko ondorioa hau da: Toki Gobernu-batzordea gure udalerrian beharrezkoa den gobernu-organoa dela, kide anitzez osatutakoa eta, dituen eskuduntzen arabera, aholkularitza eta alkateari laguntza emateko organua dena. Toki Toki Gobernu-batzordea organo aktiboa izan daiteke ere alkateak eta udalbatzak eskuordetutako eskudantzak erabiltzen dituenean.

Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 23,1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Toki Gobernu-batzordea alkateak eta hark zinegotzi guztietatik izendatutako herenak osatzen dute. Alkateak berak aukeratu eta izendatuko ditu Toki Toki Gobernu-batzordeko kideak izango diren zinegotziak, eta gero udalbatzarrean izendapenen berri emango du.

Halaber, Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 52. artikulua ezartzen duenez alkatea Toki Gobernu-batzordeko bilkuraburua izango da. Toki Gobernu-batzordea osatuko duen zinegotzi kopuruari dagokionez, artikulua horrek adierazten du, alkateak ezin izango duela udalbatza osatzen duten zinegotzien herena baino gehiago izendatu eta, zinegotzien kopuru

El desarrollo de los órganos necesarios y complementarios de los municipios aparece en los artículos 35 y siguientes y 119 y siguientes del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales de 28 de noviembre de 1986.

Por su parte, el artículo 5 del Reglamento orgánico propio de la Corporación enuncia los órganos de gobierno y administración del Ayuntamiento de Ermua.

Como queda expuesto, la Junta de Gobierno Local es un órgano de gobierno necesario en nuestro municipio, tiene carácter colegiado, y por sus atribuciones, tiene un carácter netamente de órgano de asesoramiento o de asistencia al/la Alcalde/sa, si bien puede participar del carácter de órgano activo cuando actúa en el ejercicio de competencias delegadas por el/la Alcalde/sa o el Pleno de la Corporación.

De conformidad con lo establecido en el artículo 23,1 Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, la Junta de Gobierno Local se integra por el/la Alcalde/sa y un número de concejales/as no superior al tercio del número legal de los/as mismos/as, nombrados/as y separados/as libremente por aquél dando cuenta al Pleno.

Asimismo, el artículo 52 ROF establece que es el/la Alcalde/sa el que preside la Junta de Gobierno Local y en cuanto al número de concejales/as a los/as que el/la Alcalde/sa puede nombrar miembros de la Junta de Gobierno Local, reitera que no podrá ser superior al tercio del número legal de miembros de la Corporación y añade que, a los efectos del cómputo no se tendrán en cuenta los decimales que resulten de dividir

osoa zati hiru ariketako emaitzak hamarrenak izatekotan horiek ez direla kontutan hartuko.

Horren ondorioz, Ermuko udalean zinegotzien legezko kopurua 17 izanda Toki Gobernu-batzordeko kideak, gehienez ere, 6 izango dira –alkatea eta 5 alkateorde– 17ren herena 5,666 delako eta hamarrenak kontutan hartu behar ez direlako.

Toki Gobernu-batzordea gaizki eratzeak ondorio larriak dakartza, legalki izan daitezkeenak baino kide gehiago izendatzea erabakiz gero, erabakiak erabateko deuseztasuna jaso baitezake, HAAJAPELen 62. artikuluekin bat etorriz. Erabateko deuseztasuna jaso daiteke alkatearen aginpiderik ezagatik edo erabakiaren edukia ezinezkoa izanagatik. Lehenengo kasuan, alkateak legeak egiteko eskuduntzarik ez duelakoeta Toki Jaurbidearen Oinarriak araupetzen dituen Legearen 23,1. artikulua aldaraziko lukeelako eta, bigarrenean, argi eta garbi legearen aurkakoa delako.

Nolanahi ere, AJEren 113,3 artikulua ematen dizkion eskudantzen indarrez, alkateak baimena eman ahal izango die gainerako zinegotziei eta, bereziki, udal alor edo zerbitzuen kudeaketa eskuordetu dienei Toki Gobernu-batzordearen bilkuretan parte hartzeko, bildutako guztiak legeak ezarritako gehienezko kopurua gainditzen badute ere. Horrela eginda ere, bilkuren berririk emango ez dela xedatzen duen artikulua bereko 1 b) atalean xedatutakoa ez da hautsiko, bereziki baimentutako zinegotziek eskuordetu dieten udal alor edo zerbitzuen kudeaketari buruzko argibideak ematera besterik ez baitira joango.

Nahi izanez gero, eskuordetzak jaso dituzten zinegotziek bilkura guztietara joan ahal

por tres el número total de concejales/as.

En consecuencia, el número máximo de integrantes de la Junta de Gobierno Local en el Ayuntamiento de Ermua, que cuenta con un número legal de 17 concejales/as es de 6, el/la Alcalde/sa más 5 Tenientes de Alcalde, pues el tercio de 17 es 5,666 y han de despreciarse los decimales.

Las consecuencias de la constitución defectuosa de la Junta de Gobierno Local son graves, pues el acuerdo de nombramiento de un número mayor de miembros de los/as legalmente posibles podría incidir en nulidad de pleno derecho conforme al artículo 62 LRJPAC, bien por manifiesta incompetencia del/de la Alcalde/sa para invadir competencias legislativas modificando el artículo 23,1 Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, bien por ser de contenido imposible el acuerdo que contradice claramente la ley.

Esto no obstante, cabe admitir la posibilidad de que el/la Alcalde/sa autorice la presencia de otros/as miembros de la Corporación, en particular, de quienes ejerzan funciones delegadas de la Alcaldía en la gestión de un Área o Servicio municipal determinado, en las sesiones de la Junta de Gobierno Local, aún superando este número legal máximo, en virtud de la atribución que al respecto le confiere el artículo 113, 3 ROF, sin que esto se oponga a lo dispuesto en el apartado 1 b) del propio artículo 113 ROF que establece la no publicidad de las sesiones, al objeto de que puedan informar sobre todas las cuestiones que afectan a la gestión del Área o Servicio municipal objeto de la delegación.

Incluso cabe que esta presencia sea para todas las sesiones si así se desea, sin que



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano 2304/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*
4N3A315Q5F112Q1410R3



izango dute, nahiz eta Toki Gobernu-batzordeko eskubide guztidun kideak izango ez diren, legeak aurrikusten duen muga gorde beharrekoa izango baita.

Alkateak Toki Gobernu-batzordekide guztiak kargugabetu ditzake une oro, AJEren 52. artikuluko 3. atalak ezartzen duenez. artikuluko 4. eta 5. ataletan adierazten denaren arabera, izendapenak eta kargugabetzeak AJEren 46. artikuluko 1. atalean aurrikusitako formalitateekin bat etorritz egin beharko dira. Halaber, alkateak ebazpen bakarrean eta aldiberean eman ditzake Toki Gobernu-batzordeko kide izendatzea eta AJEren 45. artikuluko garatzen duen eskumenen eskuordetza.

AJEren 46. artikuluan xedatutakoari jarraiki, alkateordeak izendatzeko eta kargugabetzeko alkateak ebazpena eman beharko du, ebatzitakoaren berri eman ez udalbatzari egiten duen lehenengo udalbatzarrean. Halaber, izendatu dituen pertsonalki jakinarazi beharko die eta Lurraldeko Buletin Ofizialean iragarri beharko du, ebazpena sinatu eta biharamunean indarrean izatearen kaltetan gabe, baldin eta ebazpenean bertan alkateak besterik agindu ez badu.

Toki Gobernu-batzordea, batez ere, alkateari aholkuak eta laguntza emateko eratzen da, batzordearen gainerako eskuduntzak hark edo udalbatzak eskuordetutako zereginak izango baitira nagusiki. Hortaz, Toki Gobernu-batzordearen eskuduntzetatik kolokan jarri ezin daitekeen bakarra, argi eta garbi esanda, alkateari Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupezen dituen Legearen 23.1 artikuluko a) atalak ematen

ello implique el reconocimiento de este/a miembro de la Corporación como miembro de pleno derecho de la Junta de Gobierno Local, al afectarle a este efecto la previsión del número legal de miembros de aquélla, antes citada.

El artículo 52 ROF en su apartado número 3 establece que, el/la Alcalde/sa puede cesar libremente, en todo momento, a cualesquiera miembros de la Junta de Gobierno Local, y en los apartados 4 y 5, respectivamente, que los nombramientos y ceses serán adoptados con las formalidades prescritas en el número 1 del artículo 46 ROF, y asimismo, podrán ser objeto de una sola resolución del/de la Alcalde/sa, el nombramiento como miembro de la Junta de Gobierno Local y la delegación de atribuciones a que se refiere el artículo 45 ROF.

El artículo 46 ROF establece para los/as Tenientes de Alcalde/sa que, los nombramientos y ceses se harán mediante resolución del/de la Alcalde/sa de la que se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que se celebre, notificándose, además, personalmente a los/as designados/as, y se publicarán en el Boletín Oficial de la Provincia, sin perjuicio de su efectividad desde el día siguiente al de la firma de la resolución por el/la Alcalde/sa, si en ella no se dispusiera otra cosa.

La Junta de Gobierno Local se configura ante todo, como órgano de asistencia del/de la Alcalde/sa, pues sus demás posibles atribuciones serán fundamentalmente las que le delegue el/la Alcalde/sa o el Pleno de la Corporación. Así, en orden a las competencias de este órgano colegiado municipal cabe señalar que, en puridad, la única atribución indiscutible de la Junta de Gobierno Local es la de asistencia al/a la

dizkion eskudentzetan laguntzea da.

Toki Gobernu-batzordeak gain har ditzakeen gainerako eskuduntzak udalbatzak edo alkateak eskuordetutakoak edo, oraindik aldarrikatu ez diren legeak eta arauak emango dizkietenak dira. Aipatutako artikulua eta zenbaki berdinaren b) atalean ezartzen denez, Toki Gobernu-batzordearenak izango dira ere alkateak edo udalbatzak eskuordetu diezazkiokeen gainerako eskurantzak.

Eskurantza eskuordezinak izango dira udalbatzarentzat gordetakoak, TJOALen 22. artikuluen 2. zenbakian eta a), b), c), d) e) f) g), h), i) l) eta p) letratzen eta 3. zenbakian jasotzen direnak. Hori berori, AJEren 53. artikuluko 2. eta 3. atalean ezarrita dago eta gainera bertan adierazten denez, alkatea eta udalbatzak Toki Gobernu-batzordeari eskuordetu diezazkiokeen eskumenen erregimenak AJEren 43, 44 eta 53. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriko beharko du.

Eskuordetzak direla-eta, AJEren 43. artikuluko 2. eta 3. atalek ondokoa diote: alkateak eskuduntzak eskuordetu ahal izango diezazkiola Toki Gobernu-batzordeari, berori kide anitzeko organoa den aldetik. Eskuordetzarik izaten den kasuetan, Toki Toki Gobernu-batzordeak eskuordetutako gaien inguruan hartzen dituen erabakiak eta, eskuordetu gabeko eskurantzetan, alkateak ebazten dituenak balio bera izango dute, batzordearen funtzionamendurako arauekin bat etorritik erabakitzearen kaltetan gabe. Alkateak eskurantza zehatz batzuk Toki Gobernu-batzordeko kideengan eskuordetu ahal

Alcalde/sa en el ejercicio de sus competencias que le asigna el apartado a) del número 1 del artículo 23 Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Las demás competencias que eventualmente pueda asumir dependerán en definitiva de las delegaciones que otorguen en su favor el Pleno o el/la Alcalde/sa, o de las que vengan a atribuirle futuras normas legales. Así lo establece el apartado b) del mismo número de este artículo al disponer que corresponden también a la Junta de Gobierno Local, las atribuciones que el/la Alcalde/sa u otro órgano municipal le delegue o le atribuyan las leyes.

No son delegables las atribuciones reservadas al Pleno en los números 2, letras a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) y p) y 3 del artículo 22 LBRL. Esto mismo se establece en el artículo 53 apartados 2 y 3 ROF en el que además se señala que, el régimen de las delegaciones del/de la Alcalde/sa y del Pleno, en la Junta de Gobierno Local, se regirá por lo dispuesto en los artículos 43; 44; y 51 ROF.

A este respecto, el artículo 43 apartados 2 y 3 ROF establece, respectivamente, que el/la Alcalde/sa puede efectuar delegaciones en favor de la Junta de Gobierno Local, como órgano colegiado. En tal caso, los acuerdos adoptados por ésta en relación con las materias delegadas, tendrán el mismo valor que las resoluciones que dicte el/la Alcalde/sa en ejercicio de las atribuciones que no haya delegado, sin perjuicio de su adopción conforme a las reglas de funcionamiento de la Junta, y el/la Alcalde/sa puede delegar el ejercicio de determinadas atribuciones en los/as miembros de la Junta de Gobierno Local, sin



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano: 2023/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*

4N3A315Q5F112Q1410R3



izango ditu, berariazko zereginetarako edozein zinegotziren alde eman ditzazkeen eskuordetza berezien kaltetan gabe, Toki Gobernu-batzordekide izan ez arren. Eskuordetza generikoak alorrari, alor batzuei edo materia zehatzei buruzkoak izango dira eta horiei dagozkien zerbitzuak zuzentzeko ahalmena edo orokorki horien kudeaketa hartu ahal izango dute, hirugarrenei ukitzen dieten administrazio-egintzen bidez erabakitzeko ahalmena barne izanik.

AJEren 44. artikulua adierazten du eskuordetza guztiak alkatearen dekretuz egin beharko direla eta, dekretuan eskuordetzen diren gaien eremua, eskuordetutako ahalmenak eta ahalmenak erabiltzeko berariazko baldintzak jasoko direla, araudi honetan aurreikusitako erregimen orokorretik urruntzen edo zehazten diren neurrian. Eskurantz eskuordetza indarrean izango da dekretua eman eta biharamunetik, dekretuak bestelakorik agintzen duenean izan ezik eta lurraldeko Buletin Ofizialean edo, edukiko balu, udalarenean derrigorrez argitaratzearen kaltetan gabe. Halaber, aurreko ataletan jasotako arauak jarraitu beharko dira eskuordetzetan geroago inolako aldaketarik egiten denean. Eskuordetza guztien eta horietan egiten diren aldaketen berri eman beharko zaio udalbatzari, organuak egiten duen lehenengo udalbatzarrean.

Bestalde, AJEren 51. artikulua dioenaren arabera, udalbatzak berea duen edozein eskurantz osoa edo haren zati bat eskuordetu ahal izango dio alkateari edo Toki Gobernu-batzordeari, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23. artikuluko 2. b) ataleko leerroaldian zerrendatzen direnak izan ezik. Eskuordetzeko erabakia gehiengo soilaz

perjuicio de las delegaciones especiales, que para cometidos específicos, puede realizar en favor de cualesquiera concejales/as, aunque no pertenecieran a aquella Junta. Las delegaciones genéricas se referirán a una o varias áreas o materias determinadas, y podrán abarcar tanto la facultad de dirigir los servicios correspondientes como la de gestionarlos en general, incluida la facultad de resolver mediante actos administrativos que afecten a terceros.

Y el artículo 44 ROF establece que, todas las delegaciones a que se refiere el artículo anterior serán realizadas mediante Decreto del/de la Alcalde/sa que contendrá el ámbito de los asuntos a que se refiere la delegación, las facultades que se deleguen, así como las condiciones específicas de ejercicio de las mismas, en la medida que se concreten o aparten del régimen general previsto en este Reglamento. La delegación de atribuciones del/de la Alcalde/sa surtirá efecto desde el día siguiente al de la fecha del Decreto, salvo que en ella se disponga otra cosa, sin perjuicio de su preceptiva publicación en el Boletín Oficial de la Provincia y el municipal, si existiere. Asimismo, las normas de los apartados anteriores serán aplicables a cualquier modificación posterior de las delegaciones. De todas las delegaciones y de sus modificaciones se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que éste celebre con posterioridad a las mismas.

De otra parte, conforme establece el artículo 51 ROF, el Pleno de la Corporación puede delegar cualquiera de sus atribuciones, en todo o en parte, en el/la Alcalde/sa y en la Junta de Gobierno Local, con abstención de las enumeradas en el artículo 23, 2 b) 2º inciso, de la Ley 7/1985, de 2 de abril. El acuerdo plenario por el que se produzca la

hartu beharko da eta biharamunean egongo da indarrean, Lurraldeko Buletin ofizialean argitaratzearen kaltetan gabe. Halaber, aurreko ataletan jasotako arauak jarraitu beharko dira erabakiari inolako aldaketarik egiten zaionean. Nolanahi ere, eskuordetzeko erabakiak eskuordetzen diren gaien eremua, eskuordetutako ahalmenak eta ahalmenak erabiltzeko berariazko baldintzak jasoko ditu, araudi honetan aurikusatako erregimen orokorretik urruntzen edo zehazten diren neurrian. Finantza kudeaketari dagokionez, udalbatzaren eskuordetza udal Aurrekontuaren exekuzio oinarrien bidez eman ahal izango da.

Harira joanez, alkateari aholkua eta laguntza emateaz gain; etorkizuneko legeetan zehaz daitekeenaz gain eta alkateak edo udalbatzak beraienetatik eskuordetu diezazkiokeenaz gain, 7/1985 Legearen 21,3 eta 23,2 b) artikuluetan adierazten denaren arabera Toki Gobernu-batzordearen eskurantzak ondokoak dira:

1. Alkatearenak (Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 21,3 artikulua):

- Udal-zerbitzu eta lanak zuzentzea, ikuskatzea eta eragitea.*
- Gastuak erabaki eta baimentzea, bere eskumenen mugen barruan; ordainketak agintzea eta kontuak ematea.*
- Udalbatzan onartutako aurrekontu eta plantila organikoarekin bat etorriz, lan-eskaintza publikoa onartzea. Langileria hautatzeko frogen oinarriak eta lanpostuak betetzeko deialdiak eta lehiaketak onartzea.*

delegación, que se adoptará por mayoría simple, surtirá efectos desde el día siguiente al de su adopción, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial de la Provincia. Estas reglas también serán de aplicación a las modificaciones posteriores de dicho acuerdo. En todo caso, el acuerdo de delegación contendrá el ámbito de los asuntos a que la misma se refiere y las facultades concretas que se delegan, así como las condiciones específicas de ejercicio de las mismas en la medida que se concreten o aparten del régimen general previsto en este Reglamento. En cuanto se refiere a las delegaciones del Pleno en materia de gestión financiera, podrán asimismo conferirse a través de las bases de ejecución del Presupuesto municipal.

Centrándonos en lo que son las atribuciones de la Junta de Gobierno Local éstas consistirán, aparte de la asistencia al/a la Alcalde/sa, en las que en las futuras leyes se especifique y las que el/la Alcalde/sa o el Pleno le deleguen de entre las a ellos/as atribuidas y configuradas como delegables. A tenor de lo dispuesto en los artículos 21, 3 y 23, 2 b) de la Ley 7/1985, tales competencias delegables son las siguientes:

1. Del/De la Alcalde/sa (artículo 21,3 Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local):

- Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales.
- Disponer gastos, dentro de los límites de su competencia, ordenar pagos y rendir cuentas.
- Aprobar la oferta de empleo público de acuerdo con el Presupuesto y la plantilla aprobados por el Pleno, aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano: 04/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*
4N3A315Q5F112Q1410R3



Finkoak eta aldizkakoak ez diren lansari osagarriak banatzea.

- Udalatzaingoaren buruzagi izatea eta baita armak daramatzaten funtzionarioak izendatu eta zigortzea ere.

- Bere agintaritzari menik ez egiteagatiko eta udal-ordenantzak hausteagatiko hutsegiteak zigortzea, ahalmen hori beste organoren bati aitorturik dagoenean izan ezik.

- Lanak eta zerbitzuak kontratatzea, beti ere, horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a baino handiagoa ez bada.

- Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, baldin eta aurrekontuan aurrikusita badaude eta horiek emateko edo kontratatzeko gaitasuna edukitzen badu.

- Ondasun eta eskubideak eskuratzea, beti ere, horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a baino handiagoa ez bada.

- Ondasunak besterenganatzea, ondoren adierazten diren portzentaia eta kopuruak gainditzen ez direnean:

a) Ondasun higiezinak, beti ere, aurrekontuan aurrikusita badaude.

b) Ondasun higigarriak, balio historiko edo artistiko bezala aitortutakoak eta horien besterenganatzea aurrekontuan aurrikusita izan ezik.

- Ordenantzak ematea, ordenantzak beste gauzaren bat agintzen dutenean izan ezik.

- Udalaren erabakiak jendaurrean jarri, betearazi eta beteko direla bermatzea.

de puestos de trabajo y distribuir las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas.

- Ejercer la jefatura de la Policía Municipal, así como el nombramiento y sanción de los/as funcionarios/as que usen armas.

- Sancionar las faltas de desobediencia a su autoridad o por infracción de las ordenanzas municipales, salvo en los casos en que tal facultad esté atribuida a otros órganos.

- Contratar obras y servicios siempre que su cuantía no exceda del diez por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto.

- Aprobar los proyectos de obras y de servicios cuando sea competente para su contratación o concesión y estén previstos en el Presupuesto.

- Adquirir bienes y derechos cuando su valor no supere el diez por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto.

- Enajenar el patrimonio que no supere el porcentaje ni la cuantía indicados en los siguientes supuestos:

a) Los bienes inmuebles, siempre que esté prevista en el Presupuesto.

b) La de bienes muebles, salvo los declarados de valor histórico o artístico cuya enajenación no se encuentre prevista en el Presupuesto.

- Otorgar las licencias, salvo que las ordenanzas dispongan otra cosa.

- Ordenar la publicación, ejecución y hacer cumplir los acuerdos del Ayuntamiento.

- Legeek berariaz aitortzen dioten beste edozein eskumen, eta legediak udalari izendatu baina udaleko beste organoren bati aitortzen ez dizkionak.

Alkateak udalaren ordezkaria izateko funtzioa eskuordetu dezakeen arren, ez dirudi zentzuzkoa funtzio hori Toki Gobernu-batzordea bezalako kide anitzeko organu bati uztea. Hortaz, funtzio hori eskuordetzekotan, hobe alkateorderen bati uztea, alkateordeak pertsona bakarrez osatutako organoak baitira.

2. Udalbatzaren eskuduntzak dira (23, 2 b) artikulua, Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen Legearen 22,2 artikuluari dagokionean):

- Auzibide eta administrazio-bidera jotzea.

- Udalaren egintzei buruzko kaltegarritasun deklarazioa egitea.

- Kreditu-eragiketak hitzartzea, baldin eta urtealdi bakoitzean horien zenbatekoa udal-aurrekontuen baliabide arrunten %10a gainditzen badu.

- Kontratazio eta emakida oro egitea, baldin eta horien zenbatekoa udal-aurrekontuen baliabide arrunten %10a gainditzen badu.

- Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, horiek emateko edo kontratatzeko gaitasuna duenean, aurrekontuan aurreikusita egon ez arren.

- Ondasun eta eskubideak eskuratzea, horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a baino handiagoa

- Las demás que expresamente le atribuyan las leyes y aquéllas que la legislación del estado o de la comunidad autónoma asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales.

Aún cuando también es delegable la función del/de la Alcalde/sa de representar al Ayuntamiento, no parece que ésta sea de las que se hayan de atribuir a un órgano colegiado como es la Junta de Gobierno Local, sino que dicha delegación se otorgará a órganos unipersonales, como los/as Tenientes de Alcalde.

2. Del Pleno (artículo 23, 2 b), en relación con el 22, 2 Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local):

- El ejercicio de las acciones administrativas y judiciales.

- La declaración de lesividad de los actos del Ayuntamiento.

- La concertación de las operaciones de crédito cuya cuantía acumulada, dentro de cada ejercicio económico, exceda del diez por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto.

- Las contrataciones y concesiones de toda clase cuando su importe supere el diez por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto.

- La aprobación de los proyectos de obras y servicios cuando sea competente para su contratación o concesión, y cuando aún no estén previstos en los Presupuestos.

- La adquisición de bienes y derechos cuando su valor supere el diez por ciento de



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Constitución de la Junta de Gobierno Local Informe de Secretaría

Toki Gobernu-batzordearen eraketa Idazkiaren txostena

Órgano: 2023/04

ORG1710F4

Código de validación/*Balidazio kodea*

4N3A315Q5F112Q1410R3



denean.

- Legeek bereziki emandako gainerakoak.

Ondorioz, alkateari dagokio korporazioko kideen heren bat (5 gehienez) Toki Gobernu-batzordekide izendatzea, horretarako dekretu bat eman beharko du eta dekretuaren edukia udalbatzarrari jakinaraziko dio, udalbatza eratu eta 30 egun baino lehenago udalbatzarra biltzen den lehenengo bilkuran, AJEren 38. c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bestalde, funtzionatzeko Toki Toki Gobernu-batzordeak bilkura edo batzarren artean aukeratu dezake.

Bilkurak izango dira, batzordekideak izendatu osteko hamargarren egunean alkateak deitutako Toki Gobernu-batzordearen eratze-bilkura eta ohiko eta ezohikoak, baldin eta ebazpenak ematen badira, AJEren 112,1 eta udalbatzaren Araudi organikoaren 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Toki Gobernu-batzordea astero bilduko da ohiko bilkuran, abuztuan izan ezik, udalbatzaren Araudi organikoaren 105. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. Bilkurak ezohikoak eta presakoak izango dira, alkateak izaera horrekin deitzen dituenen. Mota horretako deialdiak udalbatzarrak arautzen dituen arauarekin bat etorritz egingo dira, AJEren 113,1 artikulua zehazten dituen aldaketekin.

los recursos ordinarios del Presupuesto.

-Las demás que expresamente le confieran las leyes.

En consecuencia corresponde al/a la Alcalde/sa nombrar a los/as miembros de la Junta de Gobierno Local, en número no superior al tercio del número legal de concejales (5 como máximo), mediante resolución adoptada al efecto en forma de Decreto de la Alcaldía, del que se dará cuenta como queda dicho, al Pleno, en la primera sesión que celebre, una vez constituida la Corporación, dentro de los treinta días siguientes, de conformidad con lo establecido en el artículo 38 c) ROF.

De otra parte, en cuanto al funcionamiento se refiere de esta Junta, la misma puede funcionar en régimen de sesiones o de reuniones.

Las sesiones son, tanto la constitutiva, a convocatoria del/de la Alcalde/sa, dentro de los diez días siguientes a aquel en que éste haya designado los/as miembros que la integran, de conformidad con lo establecido en el artículo 112, 1 ROF y 46 del Reglamento orgánico propio de la Corporación, como las ordinarias y extraordinarias en las que se adopten acuerdos resolutorios.

La Junta de Gobierno Local, conforme a lo establecido en el artículo 105 del Reglamento orgánico celebrará sesión ordinaria con carácter semanal, excepto en el mes de agosto. Serán extraordinarias y urgentes, las que con tal carácter convoque el/la Alcalde/sa. Se ajustarán a la normativa que regula las sesiones del Pleno con las modificaciones que determina el artículo 113,1 ROF.

Batzarrak izango dira, erabakiak hartu aurretik Toki Gobernu-batzordearen iritzia eta aholkua eskatzeko alkateak edozein momentutan deitzen dituenak. Batzarra eztabaidatzeko gunea izango da. Batzarrak ezin izango du ebazpenik eman, irizpenak egin ahal izango dituen arren eta, horretarako, ongi eratuta eta, beti ere, hiru batzordekideez osatuta gutxienez egon beharko du

Las reuniones son aquéllas a las que el/la Alcalde/sa puede convocar a la Junta en cualquier momento, para conocer su parecer o pedir asistencia con anterioridad a dictar resoluciones. Tienen carácter deliberante, no pudiendo adoptar ningún acuerdo, aunque sí dictámenes, por lo que ha de estar válidamente constituida, por lo menos con tres miembros.